

LANBIDE HEZIKETA
ARTE PLASTIKOAK ETA DISEINUA



Lanbide Heziketaren garai berria




Lanbide Heziketa egiteko asmoa baduzu, garrantzitsua da zuk jakitea prestakuntza berria, praktikoa eta espezializatua dela, finean, etengabe aldatzen ari dena.

Enpresa handiek eta txikiak gero eta prestakuntza hobea eta espezializatuagoa duten profesionalak kontratatu behar dituzte. Hori dela eta, egungo Lanbide Heziketa egoera horri erantzuteko egituratu da; **heziketa praktikoa eta osoa** ematen dizu eta zuk zeuk aukeratzeko duzun alorrean profesional kualifikatu eta espezializatua izateko prestakuntza ematen dizu.

Horrez gain, bada beste irakaskuntza mota bat lan munduan sartzeko prestakuntza eskaintzen dizuna: **Arte Plastikoaren eta Diseinuaren** irakaskuntza. Irakaskuntza horren helburua da aukera berriak eskaintzen ari diren sektoreetako profesional kualifikatu bihurtzea; sektore horiek, besteak beste, hauek dira: arte aplikatuak, arte lanbideak, diseinua, eta arte eta kulturako ondarearen kontserbazioa.

Heziketa Zikloak hezkuntza sisteman



Berariazko Lanbide Heziketaren egitura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan oinarrizko lanbide heziketa jasotzen bada ere, bereziki Berariazko Lanbide Heziketan (BLH) **lanbide batean aritzeko kualifikazioa jasoko duzu.**

Berariazko Lanbide Heziketan (BLH) Erdi Mailako eta Goi Mailako **Heziketa Zikloak** daude.

Erdi Mailako Heziketa Zikloak egiteko 16 urtetik gorakoa izan behar da. Heziketa Ziklo bakoitzari titulu bat dagokio eta titulu horrekin gai izanen zara lanbide jakin batean aritzeko. Ikasketak modulutan (irakasgaiak) antolaturik daude eta horien helburua zure lanpostuari dagozkion beharretarako prestatzea da. Ikasketa horiek bukatu ondoren Teknikari titulua erdietsiko duzu.

Goi Mailako Heziketa Zikloak kurtso batekoak edo bikoak dira eta horiek bukatu ondoren Goi Mailako Teknikari titulua erdietsiko duzu. Ziklo horien helburua da lanbide sektore desberdinetan gaitasun eta kualifikazio handiagoko profesionalak prestatzea. Horretarako, espezialitate bakoitzeko alderdi teknikoak menperatuko dituzu, zure lanbide sektoreari dagokion ikuspegi zabalagoa eskuratuko duzu eta horren antolaketan sartuko zara.

Erdi Mailako eta Goi Mailako Zikloetan **Lantokietako Prestakuntza Modulua (LP)** egiten da, zure ikaskuntza osatzeko eta sektoreko enpresa batean zure lanbide kualifikazioa hobetzeko. Enpresa horietan jaso esperientziak, ezbairik gabe, lanean sartzen lagunduko dizu.

Heziketa Ziklo bakoitzaren ezaugarriak hauek dira:



Berariazko Lanbide Heziketa

Erdi Mailako Heziketa Zikloak


Nafarroan ezarrita dauden **Erdi Mailako Zikloak** 1300 ordutatik 2000 ordu bitartekoak dira eta **gehienez ere bi kurtso osotan** egiten dira.

Nola sartu

Erdi Mailako Zikloetan zuzenean sartu nahi izanez gero, **Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua** behar da. Titulu hori erdietsi ez baduzu, sarbide proba bat gainditu beharko duzu ziklo horietan sartu ahal izateko. Proba horretan parte hartzeko, gutxienez 18 urte beharko dituzu. Hala ere, **Lanbide Hastapeneko** Programaren bat gainditurik baduzu edo urtebeteko lan esperientzia baduzu, ez dira nahitaez 18 urte izan behar.

Erdi Mailako Heziketa Zikloak bukatu ondoren, lanbideari dagokion **Teknikari Titulua** erdietsiko duzu. Titulu hori eskuraturik, Batxilergoko lehen kurtsoan sar zaitezke edo Goi Mailako Heziketa Zikloetan sartzeko probarako prestakuntzako kurtsoa egin dezakezu.

Urtero Departamentuak foiletoa argitaratzen du, erdi mailako tituluaren eskaintzaren berri ematen duena. Hurrengo orrialdean 2000-2001 ikasturterako tituluaren eskaintza ageri da.




Erdi Mailako Heziketa Zikloa	Arloa
Nekazaritzako ustiategi estentsiboak	Nekazaritza jarduerak
Nekazaritzako ustiategi intentsiboak	
Lorezaintza	
Baso-lanak eta natur ingurunea zaintzea	
Natur ingurunean gorputz eta kirol jarduerak gidatzea	Gorputz eta kirol jarduerak
Administrazio kudeaketa	Administrazioa
Arte grafikoetako aurreinprimaketa	Arte grafikoak
Merkataritza	Merkataritza eta marketina
Eraikuntzako akaberak	Eraikuntza eta obra zibila
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak	Elektrizitatea-elektronika
Kontsumorako ekipu elektronikoak	
Mekanizazioa	Fabrikazio mekanikoa
Soldadura eta galdaragintza	
Sukaldaritza	Ostalaritza eta turismoa
Jatetxe eta tabernako zerbitzuak	
Estetika pertsonala	Irudi pertsonala
Ile-apainketa	
Barazki kontserbagintza eta instalazioen mantenimendua	Elikagaien industriak
Arotz-lanak eta altzariak neurrira egin eta instalatzea	Zurgintza eta altzarigintza
Karrozeria	Ibilgailu autopropultsatuen mantenimendua
Ibilgailuen elektromekanika	
Makineriaren eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa	Produkzioaren zerbitzuak eta mantenimendua
Hotz, girotze eta bero instalazioak jarri eta mantentzea	
Laborategia	Kimika
Planta kimikoko prozesuaren eragiketak	
Erizaintzako zainketa lagungarriak	Osasuna
Farmazia	
Jantzigintza	EHungintza, jantzigintza eta larrugintza

Erdi Mailako Heziketa Zikloak egin badituzu edo egiteko asmoa baduzu, gogoan izan egiten duzun zikloaren arabera Batxilergoko irakasgai jakin batzuk konbalida ditzakezula.

Gero, Goi Mailako ziklo batean matrikula egin nahi baduzu, aurretik Batxilergoa egin beharko duzu. Horretaz gainera, Goi Mailako Heziketa Ziklo batean sar zaitetzke legezko betebeharrak betetzen badituzu eta sarbide proba gainditzen baduzu.

Teknikari titulua erdietsi eta gero, hauek dituzu atarabideak.



Goi Mailako Heziketa Zikloak

Nafarroan ezarrita dauden Goi Mailako Zikloak 1.400 ordutatik 2.000 ordu bitartekoak dira eta gehienez ere bi kurtso osotan egiten dira.

Goi Mailako Zikloetan zuzenean sartu nahi izanez gero, Batxilergoko titulua behar da. Titulu hori erdietsi ez baduzu, sarbide proba bat gaituta ere sar zaitezke. Proba hori egiteko ondoko betebeharretakoa bat bete beharko duzu:

- 20 urte beteak izatea, edo
- lanbide arlo bereko edo beste bateko heziketa zikloko Teknikari titulua izatea; goi mailako zein heziketa ziklotan sartu nahi den, haren antzekoa den arlokoa izan beharko du.

Proba hori ekainean egiten da eta deialdia bakarra izanen da.

Goi Mailako Heziketa Zikloak bukatu ondoren, lanbideari dagokion Goi Mailako Teknikari Titulua erdietsiko duzu.

Titulu hau eskuratu ondoren, zuzenean sar zaitezke unibertsitatean. Ondorengo laukian agertzen dira Nafarroan 2000-2001 ikasturterako aurreikusi diren Goi Mailako Heziketa Zikloak eta horietatik abiatuta zuzenean unibertsitateko zein ikasketetara sar daitezkeen.



Unibertsitatean sartzea Goi Mailako Zikloetatik abiatuta



GOI MAILAKO ZIKLOAK	
Nek. eta abeltz. enpresen kudeaketa eta antolaketa	
Natur eta paisaia ballabideen kudeaketa eta antolak.	
Administrazioa eta finantzak	
Idazkaritza	
Arte grafikoen industrietako produkzioa	
Nazioarteko merkataritza	
Merkataritza kudeaketa eta marketina	
Garraioaren kudeaketa	
Kontsumitzaileen zerbitzuak	
Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa	
Elektronika produktuen garapena	
Instalazio elektroteknikoak	
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak	
Telekomunikazio eta informatika sistemak	
Metalezko eraikuntzak	
Proiektu mekanikoen garapena	
Mekanizazio bidezko produkzioa	
Jatetxe arloa	
Estetika	
Elikagaien industria	
Informatika sistemen administrazioa	
Informatika aplikazioen garapena	
Zurgintza eta altzarigintza	
Automozioa	
Industri ekipoaren mantenimendua	
Analisi eta kontrola	
Anatomia patologikoa eta zitologia	
Osasun dokumentazioa	
Aho eta hortzen higiena	
Diagnosi irudia	
Diagnosi klinikoen laborategia	
Hortz protesiak	
Ingurugiro osasuna	
Gizarte eta kultur jardueren sustapena	
Haur hezkuntza	
Gizarte integrazioa	

Arkiekto teknikoa					
Bibliotekonomia eta Dokumentaz. diplomaduna					
Enpresa Zientzietako diplomaduna					
Gizarte Hezkuntzako diplomaduna					
Erizaintzako diplomaduna					
Fisioterapiako diplomaduna					

Arte Plastikoak eta Diseinua

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

Araubide bereziko irakaskuntzaren zati diren Arte Plastikoen eta Diseinuaren irakaskuntzan hurrengo ikasketekin zerikusia dutenak sartzen dira: **arte aplikatuak, arte lanbideak, diseinua (hainbat modalitateetan) eta kultura ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea.**

Irakaskuntza horren helburua da kalitatezko arte prestakuntza ematea eta zure lana zuk zeuk aukeratu duzun lanbide arlo horretan garatzeko kualifikazioa bermatzea.

Egitura

Arte Plastikoen eta Diseinuaren irakaskuntzaren barnean **Goi Mailako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak** sartzen dira; heziketa ziklo horiek iraupen desberdineko moduletan antolatuta daude eta,aldi berean, modulu horietan hainbat jakintza arlo teoriko-praktiko eskaintzen da, hori guztia, aukeratu den lanbide arloaren arabera. Curriculum osatzeko ia erabat praktikoa den prestakuntza aldia egiten da; honako hau lantzen da:

- **Prestakuntza praktikoa enpresetan**, estudioetan edo lantegietan. Profesionalak, planteamendu eta egoera errealak abiapuntutzat harturik, zure prestakuntza lan merkatura bideratzen ahaleginduko dira.
- **Azkeneko lana edo proiektua**: lanbideko lanarekin zerikusi zuzena duen lan praktikoa. Azkeneko lan hori aztertu ondoren, irakasleek eskuratu duzun gaitasunen maila balioztatuko dute. Zer esanik ez, lan horrek zure arte arloko sen osoa erakusteko balioko du.

Ziklo horien iraupena **950** orduetatik **2.000 ordu** bitartekoa da eta **kurtso batean edo bitan** egiten dira.



Nola sartu

a) Erdi Mailakoan sartzeko

Erdi Mailakoan sartzeko, **Bigarren Hezkuntzako Graduatu Tituluaz** gain, **gaitasun artistikoko proba** bat gainditu beharko duzu.

b) Goi Mailakoan sartzeko

- **Arte modalitateko Batxilergoko Titulua** eskuratu baduzu, zuzenean sar zaitezke “Diseinuaren Oinarriak” irakasgaia ikasi baduzu.
- Batxilergoko titulua Artekoa ez den beste modalitate batean eskuratu baduzu, **gaitasun artistikoko proba** bat gainditu beharko duzu. Proba hau egiteko deialdia bakarra da urtean. Heziketa Zikloak ikasteko izena zein ikastetxetan ematen den, hantxe berean egin behar da izen-ematea; epeak ere berberak dira.
- Ez baduzu Batxilergoko Titulua eskuratu eta 20 urte beteak badituzu, ziklo horietan egin dezakezu matrikula; horretarako aurretik sarbide proba gainditu beharko da.

Tituluen eskaintza

Urtero Departamentuak tituluen eskaintza dakarren foiletoa argitara eman ohi du. Hau da 2000-2001 ikasturteko tituluen eskaintza.



LANBIDE ARLOA	TITULUA	MAILA
Liburuaren arloko arte aplikatuak	- Grabatua eta estanzazio teknikak	GOI MAILAKOA
Eskulturaren arloko arte aplikatuak	- Ebanisteria artistikoa - Eskulturaren arloko arte aplikatuak	ERDI MAILAKOA GOI MAILAKOA
Barneen diseinua	- Dekorazio lanen proiektuak eta zuzendaritza	GOI MAILAKOA
Diseinu grafikoa	- Autoedizioa - Argazkigintza artistikoa - Publizitate grafika	ERDI MAILAKOA GOI MAILAKOA GOI MAILAKOA
Industri diseinua	- Altzarigintza	GOI MAILAKOA

Unibertsitatean sartzea Arte Plastikoak eta Diseinuko Goi Mailako Zikloetatik abiatuta

GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN TITULUAK	Arkitekto teknikoa	Maisu-maistra (Hezkun., Berezia, Haur Hezkun., Lehen Hezkun.)	Arte Ederretako lizentziaduna	Historiako lizentziaduna	Artearen Historiako lizentziaduna	Bibliotekonomia eta Dokument. diplomaduna	Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaduna	Dokumentazioko lizentziaduna	Kazetaritzako lizentziaduna	Publiz. eta Harreman Publikoetako lizentziaduna	Diseinu industrialeko ing. tek.	Industri ing. tek. (Jantzigintzako espezialitatea)	Herriplanetako ing. tek. (Eraikuntza Zibila)	Topografiako ing. tek.
Eskulturaren arloko arte aplikatuak														
Grabatua eta estanzazio teknikak														
Publizitate grafika														
Argazkigintza artistikoa														
Altzarigintza														
Dekorazio lanen proiektuak eta zuzendaritza														



Beste ikasketa batzuk

ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZA

Berariazko Lanbide Heziketako, eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzaz gain, badira beste batzuk “Araubide Berezikotzat” jo ohi direnak. Hauexek dituzu: Arteen Irakaskuntza eta Hizkuntzen Irakaskuntza.

ARTEEN IRAKASKUNTZA

Kontserbatorioetan eta Erdi Mailako Ikastetxeetan irakasten dira, besteak beste, Arteen Erdi Mailako ikasketa hauek: musika, dantza edo pintura.

Ikasketa horiek egiteko sarbide proba gainditu behar duzu. Ikasketa horiek gainditu ondoren eta Batxilergoko Titulua eskuraturik, Goi Mailako Kontserbatorioan Goi Mailan sartzeko proba egin dezakezu.

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

Hizkuntzen ikasketak Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan, eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean egin daitezke. Horietan matrikula egin ahal izateko 14 urte beteak izan behar dituzu eta DBHko lehen zikloa bukatuta.

Arteen irakaskuntza zein hizkuntzena bereziak dira. Horrenbestez, ikasketa horiek irakasten dituzten ikastetxeek argitara ematen dituzten foiletoak begiratzea beharrezkoa da.

ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZA

Arestion aipatu ditugun unibertsitateko ikasketez, Berariazko Lanbide Heziketaz eta Araubide Bereziko Irakaskuntzaz gain, ikasketa espezializatuen eskaintza zabala da eta horietan sartzeko baldintzak askotarikoak izan ohi dira. Prestakuntza hori bukatu ondoren **ikastetxe horiek euren tituluak ematen dituzte eta titulu horiek ez dute balio akademikorik.**




Zerbitzuak eta bekak

Ikastetxeak –bakoitzak bere kokapen, tamaina eta instalazioen arabera– zerbitzu hauek eskain diezazkizueke: **jantokia, eskola garraioa, ostatua, kirol jarduerak, aisiarako jarduerak eta abar.** Zerbitzu horien gaineko argibideak ikastetxeko Idazkaritzan eska ditzakezu.

Erdi Mailako zein Goi Mailako ikasketa guztietarako, bi aukera dituzu: Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Bekak eta Nafarroako Gobernuaren deialdi osagarriko bekak eskatzea. Horretarako inprimakiak estankoetan har ditzakezu eta zein ikastetxetan egin behar duzun matrikula, hartan aurkeztu. Aipatu ditugun deialdi horietako edozeinetan parte hartu nahi izanez gero, kontuan izan ezazu betebeharrak bi motatakoak direla: ekonomikoak eta akademikoak. Informazio zuzenagoa nahi baduzu, eska ezazu foilettoa zeure ikastetxean.



Argibide gehiagorako



Heziketa Zikloen eskaintza, bai Berriazko Lanbide Heziketarena, bai Arte Plastikoetako eta Diseinukoarena, alda daiteke; beraz, komenigarria duzu ikasturtez ikasturte argitara eman ohi den foiletoa begiratzea, horretan agertuko baitira eskaintza gaurkotua eta horri dagozkion datu guztiak.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, halaber, **“Claves de la Nueva Formación Profesional”** gidaliburua argitara ohi du. Ikasketa horien gaineko edozein zalantza izanez gero, jo gidaliburu horretara.

Gidaliburu honetan aipatu dugun Araubide Orokorreko zein Bereziko edozein ikasketaren gaineko argibide gehiago nahi baduzu, hiru aukera dituzu: lehena, aipatu irakaskuntza bakoitzari dagokion berriazko gida begiratzea; bigarrena, zeure **Ikastetxeko Orientabide Departamentuan** galdetzea eta, hirugarrena, **Nafarroako Gobernu**

nuko Hezkuntza eta Kultura Departamentukoekin harremanetan jartzea.

Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Guraso eta Ikasleentzako Informazio
eta Aholkularitza Bulegoa
Tel: 948 426 617
e-mail: educacion.informacion.alumnos@cfnavarra.es

www.pnte.cfnavarra.es



Argitaratzailea:
Diseinua:
Argazkiak:
Imprimatzailea:
L.G.:

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Rebeca Arrarás eta Oscar Aznar
Larrión y Pimoulier, Photodisc
Gráficas Ona
NA-1205-2000